

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

3428

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 3koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria-rena, zeinaren bidez esleitzen baita Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatutako XLIX. (49) Hirigintza Ikastaroan (2023-2024) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia».

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez, erakundeentzako eta enpresentzako deialdia arautu zen, praktikak egingo dituzten ikasleak har ditzaten, IVAPen mendeko Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLIX. (49) Ikastaroa»ren esparruan (EHAA, 2024ko maiatzaren 21ekoa). Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez, erakunde edo enpresetan egin eta diruz laguntzen diren praktikak erregulatu ziren, eta haietan parte hartzeko deia egin zitzaizen Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLIX. (49) ikastaroa» egin duten ikasleei (EHAA, 2024ko maiatzaren 21ekoa).EVETUko Kontseilu Errektoreak egindako ebaluazioa kontuan hartuta, ebazpen-proposamena egin du Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU).

Hori dela eta, EVETUk Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariari egindako proposamena aztertuta, eta horretarako deialdia dela-eta izapidetutako espedientea ikusita, esleipen-ebazpena ematen da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea erakunde edo enpresa esleipendunen zerrenda eta praktikaldia egiteko dagokien ikasleak.

- Amezketako Udala. Maite Leturia Nabarroa.
- Santurtziko Udala. María Blanco Fernandez.

Bigarrena.– Erakunde edo enpresa esleipendunen ordezkoen zerrenda onartzea uko egiten den kasuetarako edo beste edozein gorabehera gertatzen denerako, ez baitago eskatutako tituluak dituztenen eskaera nahikorik.

- Aiarako Udala.
- Arrankudiagako Udala.
- Urduñako Udala.
- Zaratamoko Udala.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 3a.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.